- *Baliabideak dira ez bakarri izaera materialeko baliabideak, baita prebentzio-eginbehar orokorrean gehitu ahal diren baliabide guztiak, hau da, baliabide intelektualak, antolaketa-baliabideak, etab., besteak beste, arriskuak ebaluatzeko eginbeharra, lantokiak egokitzeko eginbeharra, langileei informazioa eta pres-*



*takuntza emateko eginbeharra, langileen osasun-egoera aldian-aldian zaintzeko eginbeharra, arauak betetzen direla zaintzeko eginbeharra, etab.*

*Arrisku-delitua da eta, beraz, emaitzak arrisku larria du langileen bizitzarako, osasunerako eta osotasun fisikorako. Ez da nahitaezkoa kalte eraginkorrik edo lesiorik eragitea.*

- *Kasu bakoitzean, langile batentzat edo gehiagorentzat arrisku-egoera zehatza dagoela frogatu behar da.*
- *Arriskuak larria izan behar du, hau da, ukitutako langilearen edo langileen bizitzarako, osasunerako eta osotasun fisikorako garrantzitsua.*

*Subjektu aktiboa:*

*Zigor Kodearen 316. artikuluan legezko betebeharra duten pertsonak aipatzen dira. Horrek esan nahi du delituaren egile posibleen edo pertsona erantzuleen esparrua mugatuta egongo dela prebentzio arloko araudi orokor eta zehatzaren arabera langileei baliabideak emateko betebeharra duten pertsonengana.*

1. *Enpresaburua. LAPLren arabera, langileak laneko baldintzetatik eratorri daitezkeen arriskuetatik babestu behar dituen pertsona nagusia enpresaburua da. Kontzeptu zabal horretan enpresaburu nagusia, kontratistak eta azpikontratistak sartzen dira.*

   *Ildo horretatik, LAPLren 14.2 artikuluak laneko arriskuen prebentzioa egin behar dela eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezko neurri guztiak onetsi behar direla ezarri du. Neurri horiek, gerora, Legean zehazten dira.*

2. *Enpresaburuak eskuordetuta jarduten duten pertsonak (zuzendariak, bitarteko kargudunak, arduradunak, etab.).*

   *Zigor-erantzukizuna eskatu ahal zaie era berean enpresa-antolaketan integratuta dauden eta enpresaburuak eskuordetuta zuzendaritza edo erabakitzeko-boterea duten pertsonei, hala nola, goi-zuzendaritzako langileak, bitarteko kargudunak edo betearazpen-eginkizunak gauzatzen dituzten pertsonak.*

*Auzitegi Goreneko bigarren salako jurisprudentziak zenbait aldiz ezarri du segurtasun-arauak modu eraginkorrean betetzea zaintzeko betebeharra eskatu ahal zaiola enpresaren barruan edozein motatako agintea duen pertsonari, baina horrek ez duela esan nahi erantzukizun osagarri horrek enpresaburuaren erantzukizuna kanpoan uzten duenik. Beraz, goitik beherako erantzukizuna, salbuespenik gabe, ezarri da.*

*Ildo horretatik, hona hemen Auzitegi Gorenak ezarritakoa (AGE2, 1992ko uztailaren 16a):*

*"Todas aquellas personas que desempeñen funciones de dirección, o de mando en una empresa y, por tanto, sean éstas superiores, intermedias o de mera ejecución, y tanto las ejerzan reglamentariamente como de hecho, están obligadas a cumplir y a hacer cumplir las normas destinadas a que el trabajo se realice con las prescripciones elementales de seguridad."*

vos, etc., como por ejemplo el deber de evaluar los riesgos, de acondicionamiento de los lugares de trabajo, de dar información y formación a los trabajadores, la vigilancia periódica de su estado de salud, y de vigilancia del cumplimiento de las normas etc.

Se trata de un delito de riesgo y, en consecuencia, el resultado constituye un peligro grave para la vida, la salud y la integridad física del trabajador, no siendo necesario que se produzcan daños efectivos ni lesiones.

- Hay que probar en cada caso la existencia de una situación de peligro concreta para la vida o la salud de uno o más trabajadores en particular.
- El peligro ha de ser grave, que se puede interpretar como relevante para la vida, la salud y la integridad física del trabajador o trabajadores afectados.

Sujeto activo:

El artículo 316 del Código Penal hace referencia a aquellas personas que estén legalmente obligadas. Esto significa que el ámbito de los posibles autores o personas responsables del delito quedarán delimita das en cada caso por las persones a las que la normativa general y especifica en materia preventiva imponga obligaciones de facilitar medios a los trabajadores.

1. Empresario. Según la regulación de la LPRL el principal obligado a velar por la protección de los trabajadores frente a los riesgos que se puedan derivar de las condiciones en que el trabajador realiza es el empresario, concepto amplio en el que hay que incluir tanto el principal como los contratistas y subcontratistas.

   En este sentido, el artículo 14.2 de la LPRL impone la obligación de realizar la prevención de riesgos laborales y la aprobación de todas aquellas medidas que sean necesarias para la protección de la seguridad y la salud de los trabajadores, que posteriormente se especifican en el desarrollo de la Ley.

2. Personas que actúan por delegación del empresario (directivos, cargos intermedios, encargados, etc.).

   La responsabilidad penal puede exigirse también a aquellas personas integradas en la organización empresarial y que, por delegación del empresario, ejercen funciones que impliquen dirección o poder de decisión tanto des del personal de alta dirección, cargos intermedios, o a los que ejerzan funciones ejecutivas.

La jurisprudencia de la sala segunda del Tribunal Supremo ha declarado en diversas ocasiones que la obligación de velar por el cumplimiento efectivo de las normas de seguridad es exigible a toda persona que dentro de la empresa ejerza un mando de cualquier tipo, sin que esta responsabilidad complementaria excluya la del empresario. Se confirma pues, con una responsabilidad en cascada y sin exclusiones.

En este sentido el Tribunal Supremo ha declarado que (STS2, 16 de julio de 1992):

"Todas aquellas personas que desempeñen funciones de dirección, o de mando en una empresa y, por tanto, sean

éstas superiores, intermedias o de mera ejecución, y tanto las ejerzan reglamentariamente como de hecho, están obligadas a cumplir y a hacer cumplir las normas destinadas a que el trabajo se realice con las prescripciones elementales de seguridad.”

El elemento determinante para afirmar la responsabilidad de estas personas es que tengan poder de decisión con autonomía (que puedan decidir automáticamente sobre la adopción de medidas de seguridad) y que, en consecuencia, se pueda decir que son persones legalmente obligados a facilitar medios y que sean necesariamente una persona física. Por esto, con la finalidad de ofrecer una solución al problema que se plantea cuando la comisión de estos delitos se atribuye a una sociedad o personas jurídicas el artículo 318 dice que cuando estos hechos se atribuyen a personas jurídicas:

> Hay que imponer la pena señalada a los administradores o a los encargados del servicio que hayan sido responsables y a aquellos que, conociéndolos y pudiendo re mediarlo, no hayan adoptado medidas para hacerlo.

La LPRL también prevé otros sujetos a los cuales se atribuyen una serie de funciones, atribuciones, faculta- des, responsabilidades, etc. en materia preventiva. Así, por ejemplo:

- Los delegados de prevención, que asumen funciones en materia de prevención de riesgos laborales de asesoramiento y asistencia al empresario, a los trabajadores y a sus representantes y a los órganos de representación especializados.

La responsabilidad de estos sujetos no excluye la del empresario que conserva la responsabilidad que le toca en concordancia con lo establecido en el artículo 14.4 de la LPRL, según el cual la atribución de funciones a los trabajadores en materia preventiva, o el recurso a servicios de prevención propios o externos complementarán las acciones del empresario en este ámbito, pero no lo exoneran del cumplimiento de sus deberes en esta materia.

Personas jurídicas implicadas en la prevención:

- Los servicios de prevención que son representantes de los trabajadores con funciones específicas de colaboración, fomento, consulta, vigilancia y control en materia preventiva.
- El comité de seguridad y salud como órgano creado por la Ley con funciones de participación y consulta.

En todos estos casos en que los sujetos citados tienen atribuidas funciones en la materia, el criterio a tener en cuenta a la hora de determinar si pueden ser personas penalmente responsables del delito contra la seguridad de los trabajadores deberá ser el tipo de obligación legal que tenga atribuida y, en este sentido, siguiendo el criterio utilizado por el artículo 316, solamente podrán serlo aquellos que tengan asignadas obligaciones legales consistentes en facilitar medios, la cual cosa excluye aquellas funciones consistentes a asesorar, asistir, apoyar, colaborar, etc.

*Pertsona horien erantzukizuna baieztatzeko osagai erabakigarria erabakitzeko ahalmena autonomiaz izatea da (hau da, segurtasun-neurriak hartzeari buruz erabaki ahal izatea) eta horren eraginez esan ahal izatea baliabideak emateko betebeharra dutela; nahitaez pertsona fisikoak izan behar dute. Hori dela eta, delitu hauek egitea sozietate edo pertsona juridiko batzuei leporatzen zaienean, 318. artikuluan ezarri da egitate horiek pertsona juridikoei leporatu behar zaizkiela:*



> *Arduradunak izan diren administratzaileei edo zerbitzuaren arduradunei finkatutako zigorra ezarri behar zaie, baita egitateen berri izan eta konpontzeko aukera izanda horretarako neurriak hartu ez dituztenei ere.*

*LAPLn beste subjektu batzuk ere ezarri dira, eta horiei zenbait eginkizun, esleipen, ahalmen, erantzukizun, etab. esleitzen zaizkie prebentzio arloan. Adibidez:*

- *Prebentzio-ordezkariak. Laneko arriskuen prebentzioen arloko eginkizunak euren gain hartzen dituzte, aholkularitza eta laguntza enpresaburuari, langileei eta horien ordezkariei eta ordezkaritza-organo berezituei.*

*Subjektu horien erantzukizunak ez du enpresaburuarena salbuesten. Azken horrek egokitzen zaion erantzukizuna izango du LAPLren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horren arabera, prebentzio arloko eginkizunak langileei esleitzeak edo bertako edo kanpoko prebentzio zerbitzuetara jotzeak enpresaburuak arlo horretan egindako ekintzak osatuko ditu, baina enpresaburua ez dute salbuesten arlo horretan dituen eginbeharrak betetzetik.*

*Prebentzioan inplikatutako pertsona juridikoak:*

- *Langileen ordezkariak diren prebentzio-zerbitzuak. Prebentzio arloan lankidetza, sustapen, kontsulta, zainketa eta kontrol eginkizun bereziak egiten dituzte.*
- *Segurtasun- eta osasun-batzordea, legeak sortutako organo moduan, partaidetza eta kontsulta eginkizunekin.*

*Kasu horietan guztietan, aipatu subjektuek arlo horretan eginkizunak esleituta dituzte. Kasu horietan, langileen segurtasunaren aurkako delituaren erantzule izan daitezkeen erabakitzeko irizpidea esleitutako legezko betebeharraren mota izango da, eta ildo horretatik, 316. artikuluko irizpideari jarraituz, legez baliabideak emateko*

*betebeharra esleituta dutenak soilik izan daitezke, eta horrek salbuetsi egiten ditu aholkuak emateko, laguntzeko, babesteko, lankidetzan aritzeko, eta abarrerako eginkizunak.*

*Hala ere, bertako edo kanpoko prebentzio-zerbitzuetako kideei dagokienez, Legeak prebentzio-arloan aholkularitza- eta babes-eginkizuna esleitzen dien arren, enpresaburuak eginkizun horiek eskuordetu ditzakeela, eta kasu horretan, prebentzio-arloko erabakiak hartzeko autonomia badute, legez baliabideak emateko betebeharra dutela joko da eta, horren ondorioz, langileen segurtasunaren aurkako delituaren erantzuleak izango dira.*



***1.3.1. Delitu-modalitateak***

*Langileen segurtasunaren aurkako delituaren modalitateei dagokienez, Zigor Kodean bi aipatzen dira:*

*- 316. artikuluan ezarritako dolozko modalitatea.*

*- Zuhurtziagabekeriazko modalitatea, 317. artikuluan ezarritakoa.*

***Dolozko modalitatea***

*Delitu-jarrera nahita eta modu kontzientean egitea da. Hori dela bide, langileen segurtasunerako babes-baliabide egokiak ez dira ematen, legez horretarako betebeharra dutela jakin arren eta ez-egite horren ondorioz langileen bizitzarako, osotasun fisikorako edo osasunerako arrisku larria eragin daitekeela jakin arren.*

*Hau da, erantzuleak, segurtasun-neurriak hartzeko legezko betebeharra duela jakin arren eta neurri horiek ez egoteak eragindako arriskuaren jakitun izan arren, neurri horiek ez hartzeko erabakia hartu eta egoera arriskutsua egotea onartzen duenean aplikatzen da.*

***Zuhurtziagabekeriazko modalitatea***

*Jarrera ez da nahita egiten, neurriak hartzeko erantzukizuna duen subjektuaren aldetik zuhurtziagabekeria larria da. Jarrera arduragabea da, langileei lan-jarduera arrisku larriko egoerarik gabe garatzeko beharrezko baliabideak ez emateagatik.*



*Subjektu erantzulea ez da ohartzen araudian legezko betebeharrak dituela segurtasun-neurriak hartzeko edo ez da ohartzen horrek arriskua eragiten duela, eta axolagabetasunez jarduten du, langileen bizitzarako edo osasunerako arrisku larri hori materializatuko ez dela uste baitu.*

***Zehapenak***

*Zigor Kodean ezarritako zigorrak desberdinak dira, dolozko modalitatea edo zuhurtziagabekeriazko modalitatea den kontuan hartuta:*

***Ondorio erantsiak***

*Kasu horietan, Zigor Kodearen 318. artikuluan ezarri da agintaritza judizialak, arautako eta normalean aplikatutako zigorrez gain, Zigor Kodearen 129. artikuluan ezarritako prebentzio-neurriak ezar ditzakeela, hau da, enpresa aldi baterako edo behin betiko ixtea, jarduera*

No obstante, hay que tener en cuenta, en relación con los miembros integrantes de los servicios de prevención propios o ajenos, que pese a que la Ley los atribuye principalmente una función de asesoramente y apoyo en materia preventiva, también puede existir una delegación de estas funciones por parte del empresario y, en este caso, si tienen autonomía para tomar decisiones en materia preventiva, también podrán ser considerados como sujetos legalmente obligados a failitar medios y, en consecuencia, personas penalmente responsables del delito contra la seguridad de los trabajadores.

**1.3.1. Modalidades delictivas**

En cuanto a las posibles modalidades de comisión del delito contra la seguridad de los trabajadores el Código Penal, incluye dos:

- La modalidad dolosa prevista por el artículo 316.

- La modalidad imprudente prevista por el artículo 317.

**La modalidad dolosa**

Supone la comisión intencionada y plenamente consciente del comportamiento delictivo consistente en no facilitar los medios de protección adecuados para la seguridad de los trabajadores aun teniendo conocimiento de la existencia de la obligación legal y del peligro grave que de esta omisión se deriva para la vida, la integridad física o la salud de los trabajadores.

Es decir, se aplicará en aquellos casos en que el responsable, aun conociendo la existencia de una obligación legal que le impone la adopción de medidas de seguridad y siendo consciente del peligro que la falta de estas medidas supone, mantenga la decisión de no adoptarlas, aceptando la existencia de esta situación peligrosa.

**La modalidad imprudente**

No existe una conducta intencionada, sino una imprudencia grave por parte del sujeto responsable de adoptar las medidas. Se trata de un comportamiento descuidado o negligente por no facilitar a los trabajadores de los medios necesarios para que desarrollen su actividad laboral sin dar lugar a situaciones de peligro grave.

Supone la falta de consciencia en el sujeto responsable de la existencia de las obligaciones legales previstas en la normativa que lo obliga a adoptar medidas de seguridad o la falta de conciencia del peligro que esto comporta, actuando de manera descuidada en la confianza que este peligro grave para la vida o la salud de los trabajadores no llegue a materializarse.

**Sanciones**

Las pena prevista por el Código Penal varían sustancialmente según si se trata de la modalidad dolosa o de la modalidad imprudente:

**Consecuencias accesorias**

En estos casos, el artículo 318 del Código Penal prevé también que la autoridad judicial pueda decretar, además de las penas reguladas y aplicadas habitualmente,

cualquiera de las medidas preventivas incluidas en el artículo 129 del Código Penal, consistentes en medidas como la clausura de la empresa de manera temporal o defi- nitiva, la suspensión de la actividad, la disolución, etc., las cuales tienen la finalidad de prevenir la continuidad de la actividad delictiva.

**Los delitos de resultado**

En aquellos casos en los que, además del delito de peligro por la no adopción de las medidas de seguridad esta situación de riesgo se materialice en un resultado de lesiones o muerte del trabajador/es afecta- do/s por el riesgo, nos encontramos, además, frente a un delito a falta de homicidio o de lesiones generalmente apreciada de imprudencia.

En estos delitos/faltas el autor puede ser cualquier persona que haya realizado la conducta imprudente, a diferencia de lo que ocurre en los delitos contra la seguridad de los trabajadores de los cuales, solo pueden ser responsables penalmente, como se ha visto, los que estén "legalmente obligados".

En el Código Penal se recogen las modalidades delictivas siguientes, que pueden ser de aplicación en estos casos:

1. El delito de homicidio por imprudencia grave previsto por el artículo 42 del Código Penal castigado con pena de 1 a 4 año

   Además, si se determina que el delito ha sido causado por imprudencia profesional, se impondrá una pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un periodo de 3 a 6 años.

2. El delito de lesiones por imprudencia grave incluido en el artículo 152 del Código Penal. Se prevén penas de diversa gravedad según la entidad de las lesiones y oscilan entre 3 meses y 3 años de prisión.

   Se prevé también para los casos de imprudencia profesional la pena de inhabilitación especial para el ejercicio de la profesión, oficio o cargo por un periodo de 1 a 4 años.

3. Falta de homicidio por imprudencia leve previsto por el artículo 621.2 del Código Penal, castigado con pena de 1 a 2 meses de prisión.

4. Falta de lesiones por imprudencia leve, previstas en el artículo 621.3 del Código Penal castigadas con pena de 10 a 30 días de multa.

**El concepto de imprudencia**

Podemos decir que una conducta es imprudente cuando el sujeto actúa con falta de cuidado, de diligencia o con negligencia y como consecuencia de esto se produce un resultado que no era querido pero sí que era previsible y evitable. En definitiva, el comportamiento imprudente su- pone la omisión de la diligencia que era exigible para prevenir y evitar un resultado.-

*etetea, desegitea, etab. Horien bidez delitu-jarduerak jarraitzea prebenitu nahi da.*

***Emaitza-delituak***

*Segurtasun-neurriak ez hartzeagatik eragindako arriskudelituaz gain arrisku horrek langilearen/en lesioak edo heriotza eragiten badira, gainera, giza hilketaren edo lesioen delituaren aurrean gaude, zuhurtziagabekeriazkotzat jotzen dena.*

*Delitu/falta horietan, egilea zuhurtziagabekeriazko jarrera egin duen pertsona izan daiteke. Langileen segurtasunaren aurkako delituetan, ikusi dugunez, "legezko betebeharra" dutenak soilik izan daitezke erantzuleak.*

*Zigor Kodean delitu-modalitate hauek ezarri dira, eta kasu hauetan aplikatzeko modukoak izan daitezke:*

1. *Zuhurtziagabekeria larriaren ondoriozko giza hilketaren delitua, Zigor Kodearen 42. artikuluan ezarritakoa. Urte 1 eta 4 urte bitarteko zigorra izan dezake.*

   *Horrez gain, delitua lanbide-zuhurtziagabekeriaren ondorioz eragin dela zehatzen bada, lanbidean, ogibidean edo karguan aritzeko ezgaikuntza bereziaren zigorra ezarriko da 3 eta 6 urte bitartean.*

2. *Zuhurtziagabekeria larriak eragindako lesio-delitua, Zigor Kodearen 152. artikulukoa. Larritasun desberdinetako zigorrak ezarri dira, lesioen izaera gorabehera, eta 3 hilabete eta 3 urte bitarteko espetxealdia ezarriko da.*

   *Lanbide-zuhurtziagabekeriaren kasuetan lanbidean, ogibidean edo karguan aritzeko ezgaitasun berezia ere ezarri da, urte bat eta lau urte bitartean.*



3. *Zuhurtziagabekeria arinaren ondorioz gertatutako giza hilketaren falta, Zigor Kodearen 621.2 artikuluan ezarritakoa. Zigorra hilabete 1etik 2ra arteko espetxealdia izango da.*

4. *Zuhurtziagabekeria arinaren ondoriozko lesioen falta, Zigor Kodearen 621.3 artikuluan ezarritakoa. Zigorra 10 eta 30 egun bitarteko isuna izango da.*

***Zuhurtziagabekeria kontzeptua***

*Jarrera bat zuhurtziagabea dela esan dezakegu subjektuak arretarik eta ardurarik gabe edo zuhurtziagabekeriaz jarduten duenean. Horren eraginez, lortutako emaitza ez zen nahi, baina aurreikusteko eta saihesteko modukoa zen. Azken finean, zuhurtziagabekeriazko jarrera dela bide emaitza prebenitu eta saihesteko eskatzen zen ardura ez da praktikan ipintzen.*

# "AIGUALLUTS UR-JAUZIA"

# "LA CASCADA DE AIGUALLUTS"

**Jon Zapirain Bilbao. Colegiado 2798 Elkargokidea**



*__"Aiguallluts ur-jauzia"__ Anetoko glaziarra urtzean sortutako urekin eratzen da. Urak "Forau" leizean erortzen dira, lurpean desagertzen dira eta Val D'Aranen agertzen dira, zenbait kilometrotara.*

*Leizean desagertzen ez diren urek Esera ibaia eratzen dute, eta ibai hori bizkor jaisten da Benasque haranetik.*

*__Norbert Casteretek__ 1931n erakutsi zuen leizean desagertzen ziren urak Arán haranean agertzen zirela, Garona ibaiaren adar batean. Gizon hori Saint Martoryn jaio zen, Garona ibaitik hurbil dagoen herrian, eta gaur egungo espeleologiaren benetako bultzatzailea izan zen. Abenturazalea eta ausarta zen, eta balentria, espedizio eta idatziei esker ezagutzen dugu.*

*Ibilbiderako aukerak:*

*• GPSa. Ez egin kasu handirik, Pirinioen barrutik joateko esango baitigu eta gure jomugara iristeko denbora asko beharko baitugu.*

*• Frantziatik: __Bilbotik__ ibilgailuan aterako gara, __Vielha__ (Viella) norabidean, __Val d'Aranen__ (Lleidako Pirinioak). Tunela zeharkatu ondoren, Pont de Suert, Castejón de Sos eta Benasquerantz joko dugu.*

*• Autobidez eta autobiaz: Bilbo-Zaragoza-Huesca-Barbastro-Graus-Castejón de Sos-Benasque. Aukerarik onena da, errepide ona. Eta Grausetik Benasquera geldoago joango gara, ezkerrean geratzen den Esera ibaiak egindako arroilatik Castejóneraino. Tarterik delikatuena da, baina ikusgarria eta edertasun handikoa.*

*__Hurbilketa__.- Gure kuartel nagusia nahi dugun lekuan jar dezakegu. Benasquek hotel-eskaintza handia du, baina inguru turistikoa da. Castejón de Sosek ez du horrenbeste eskaintza, eta Pirinioetako herriaren ukitua du oraindik. Edonola ere, gure ibilaldia oinez __"Hospital de Benasque"__ izenekoan hasiko da. Bertan har dezakegu ostatu eta lasaitasun handiagoa izan dezakegu eta instalazioez gozatu.*

*Benasquetik iparraldera doan errepidea hartuko dugu, Hospital de Benasque izenekora. Aparkaleku handi batek erakutsiko ditu jomugara iritsi garela.*

La **"Cascada de Aiguallluts"**, se forma con las aguas del deshielo del glaciar del Aneto que caen en torrente a la sima "Forau" del mismo nombre, para desaparecer en las entrañas de la tierra y aparecer en el Val D'Aran, a varios kilómetros de distancia.

Las aguas que no desaparecen en la sima, comienza a formar el Río Esera, que baja con brío por el Valle de Benasque.

**Norbert Casteret** fue, en 1931, quien demostró que las aguas que desaparecían en la Sima emergían en la zona de Arán en un afluente del Río Garona. Este hombre, nacido en Saint Martory, localidad próxima al río Garona, fue el auténtico propulsor de la espeleología actual. Aventurero y valiente, como se le conoce por sus hazañas, expediciones y escritos.

Opciones para el itinerario:

• GPS. Cuidado con hacerle caso, ya que nos ofrecerá ir por dentro del Pirineo y nos podemos eternizar para llegar a nuestro destino.

• Por Francia: salimos de **Bilbao** en vehículo, dirección **Vielha** (Viella) en el **Val d'Aran** (Pirineo de Lérida). Allí, una vez cruzado el túnel, tomar dirección al Pont de Suert, Castejón de Sos y Benasque.

• Por Autopista y autovía: Bilbao-Zaragoza-Huesca-Barbastro-Graus-Castejón de Sos-Benasque. Es la mejor opción, buena carretera. Y desde Graus a Benasque iremos más despacio por un cañón con el río Esera a nuestra izquierda hasta Castejón, es el tramo más delicado pero espectacular y de gran belleza.

**Aproximación**.- Podemos instalar nuestro cuartel general donde queramos. Benasque ofrece una variedad hotelera importante, pero es más turístico. Castejón de Sos, con menos oferta, guarda aún ese sabor a pueblo del Pirineo. En cualquier caso, nuestra excursión se inicia, a pie, en **"Hospital de Benasque"**, donde también podemos hospedarnos y disfrutar de mayor tranquilidad y de sus instalaciones.

Desde Benasque tomamos la carretera que se dirige al Norte, Hospital de Benasque. Un amplio aparcamiento nos indica que hemos llegado a destino.

**Itinerario 1: Hospital de Benasque-Plan D'Estanys-Forau de Aigualluts.**

**0,00.-** Desde el Hospital (1.758 mts), comenzaremos a andar por una estrecha carretera, que en verano esta cerrada al paso de vehículos, para evitar la masificación de turistas y excursionistas. Tenemos 2 kilómetros de camino hasta llegar a "Plan de Estanys". El camino no tiene pérdida, seguir la carretera en dirección Este y adentrarnos entre las montañas en un Valle bastante abierto con bosques poco frondosos por la altura en que nos encontramos y con un arroyo, ahora a nuestra izquierda que es el río Esera.

A nuestra izquierda vemos las montañas que constituyen la "muga" con Francia con cotas de más de 2.500 metros, mientras que a nuestra derecha y en dirección sur, comienza a emerger el macizo de los Montes Malditos (Maladeta, Aneto, ...) con sus más de 3.400 metros de altura. La cámara de fotos a mano nos hará pararnos constantemente.

**0,45.- "Plan D'Estanys"**. Hasta aquí pueden llegar los coches, pero en verano se cierra al tráfico el tramo entre el Hospital y el Plan D'Estanys por la gran afluencia de vehículos. En Invierno, el acceso no es posible por la cantidad de nieve, con lo que hay que hacerlo a pie como recomiendo en esta excursión.

En este punto parten muchas de las rutas de montaña de la zona. Un poco antes de llegar al Plan, a nuestra izquierda y en dirección Norte, nace uno de los senderos que se dirigen al "Portillón de Benasque", auténtico paso fronterizo utilizado por "mugalaris" y contrabandistas hasta el pasado siglo XX. El paso está flanqueado por el Pico de la Mina (2.707 mts) y el Pico de Salvaguarda (2.738), aunque esa es otra excursión.

En nuestro caminar y en el Plan de Estanys dejamos definitivamente la carretera al llegar a un puente y a una cabaña de pastores. Cruzamos un riachuelo por camino señalizado y nos encontramos una bifurcación: a nuestra derecha y dirección Sur de forma ascendente el camino que va al "Refugio de la Renclusa", paso obligado para las ascensiones al Aneto y a La Maladeta. Y continuando por el camino en dirección Este y con suave desnivel en dirección a la "Cascada de Aiguallluts", que es nuestro itinerario.

El bosque va desapareciendo según ganamos altura, muy suavemente, ya que nuestro destino está a 2.000 mtos., y nos encontramos a unos 1.900 mts. El sendero es evidente y serpentea. A partir de aquí, quizás tengamos suerte y nos encontremos con alguna **"marmota"**, estamos en su hábitat. Son rápidas, escurridizas, de cuerpo peludo, cara simpática y tienen sus guaridas bajo rocas, pero lo lógico es que las veamos, fotografiar una es bastante más difícil y requiere paciencia, un buen teleobjetivo y mucha suerte.

Según dejamos el bosque, ganamos en visión y el glaciar del Aneto está a nuestra derecha, oculto por cimas menores. el desnivel es muy asequible y nos lleva hasta un hermoso y despoblado valle. Para llegar a este valle descendemos por el sendero unos metros y llaneamos por él hasta el final.

***1. ibilbidea: Hospital de Benasque-Plan D'Estanys-Forau de Aigualluts.***

*0,00.- Hospital de Benasquen (1.758 mts) errepide estua hartuko dugu oinez. Udan ibilgailuentzat itxita egoten da, turista eta txangolari gehiegi ez pilatzeko. 2 kilometro egin behar ditugu "Plan de Estanys" izeneko lekura iristeko. Bideak ez du galerarik, ekialderako errepideari jarraitu eta mendien artean sartu, haran nahiko irekian, baso ez oso itxiekin, altuera dela-eta. Ezkerrean errekasto bat izango dugu, Esera ibaia.*

*Ezkerrean Frantziarekin muga egiten duten mendiak daude, 2.500 metrotik gorako tontorrekin. Eskuinean eta hegoaldean, Mendi Madarikatuen mendikatea agertzen hasten da (Maladeta, Aneto...) 3.400 metrotik gorako altuerekin. Argazkiak ateratzeko behin eta berriro gelditukо gara.*

*0,45.- **"Plan D'Estanys"**. Honaino autoak iritsi daitezke, baina udan trafikorako itxita egoten da, ibilgailu asko ibiltzen dira eta. Neguan ezin da pasatu, elur asko egoten delako, eta beraz, oinez joatea gomendatzen dut.*

*Puntu honetan inguruko mendi-ibilbide asko abiatzen dira. Planera iritsi baino apur bat lehenago, ezkerrean eta iparralderantz, "Portillón de Benasque" izenekora doan bidezidorra dago. Mugako pasabide hori mugalariek eta kontrabandistek erabiltzen zuten XX. mendeko lehenengo urteetara arte. Pasagunearen bi muturretan Pico de la Mina (2.707 m) eta Pico de Salvaguarda (2.738) daude, baina hori beste ibilaldi bat da.*

*Gure bidean, Plan de Estanysen, zubi batera eta artzaintxabola batera iristean errepidea utziko dugu. Errekasto bat gurutzatuko dugu, seinalatutako bide batetik, eta bidegurutzea aurkituko dugu: eskuinera eta hegoalderantz, gora eginez, "Refugio de la Renclusara" doan bidea, Anetora eta La Maladetara igotzeko bidea. Eta ekialderantz eta desnibel leun batekin, "Cascada de Aiguallus" gure jomugara.*

*Gorantz goazen heinean basoa desagertu egiten da. Apurka-apurka egingo dugu gora, gure jomuga 2.000 m-ra baitago, eta gu 1.900 m ingurura. Bidezidorra argia da eta sigi-saga egiten du. Hemendik aurrera agian zortea izango dugu eta baliteke **"marmotaren"** bat ikustea,*



*haien habitatean gaude eta. Azkarrak dira, ihes egiten dute, gorputz iletsua dute, aurpegi atsegina eta harrien azpian ezkutatzen dira. Logikoena marmotak ikustea da, baina argazkiak ateratzea askoz zailagoa da eta pazientzia, teleobjektibo ona eta zorte handia behar dira.*

*Basoa desagertu ahala, gehiago ikusiko dugu eta Anetoren glaziarra eskuinean dagoela ohartuko gara, tontor txikiagoek ezkutatuta. Desnibela nahiko ona da eta haran eder eta huts batera eramaten gaitu. Haran honetara iristeko, bidezidorretik metro batzuk jaitsiko gara eta haranean ibiliko gara, amaieraraino iritsi arte.*

*Han **zurezko hesia** aurkituko dugu. Hesia errespetatu egin behar dugu. Leku horretatik **"Forau de Aiguallluts"** ikusten da. Hor ura leizean desagertu egiten da, harrien azpian, artikuluaren hasieran esan dudan moduan. Ura Val D'Aránen agertzen da berriro. Leku atsegina da bazkaltzeko edo askaria hartzeko, orduaren arabera, baina ibilaldia oraindik ez da amaitu.*



*2,00.- Desnibel txiki bat gaindituko dugu. Eskuinean urak egindako amildegia izango dugu, eta **"Aiguallluts urjauzira"** iritsiko gara. Ikusgarria da. Bidetik, eta kontuz-kontuz, elurra urtzetik sortutako uraren indarra ikusiko dugu, beherantz erortzen. Argazkiak egin ondoren, metro batzuk aurrerago **"Forau de Aiguallluts"** (2.000 m) izenekora iritsiko gara. Zelaigune handi bat da, eta bertan ura mantso-mantso mugitzen da ur-jauziraino.*

*Lehenengoz Anetoko glaziarra eta atzealdean tontorra ikusita gozatu ahal izango dugu. Metro gutxitan, glaziarra, elurra urtzen, hortik sortutako ibaia eta ura "Forau de Aiguallluts" leizean desagertzen ikusiko dugu. Ikusgarria da.*

*Bide beretik itzuliko gara, paisaiaz gozatu ondoren eta argazki asko egin ondoren. Beste bi ordu beharko ditugu gutxi gorabehera.*

***2. ibilbidea (Goi-mendikoa): Refugio de la Renclusa-Aneto.***

***1. eguna:** 0,00.- **"Plan D'Estanys"**-etik "Refugio de la Renclusa" izenekora doan bidezidorra hartuko dugu. Bidea argia da, baso bat zeharkatzen du, eta basoaren amaieran aterpera iritsiko gara..*

*0,45.- **"Refugio de la Renclusa"** (2.140 m). Komeni da erreserba aurretik egitea eta arratsaldean nahiko goiz iristea, goiz afaldu eta ohera joateko, hurrengo egunean goizean goiz iratzarri behar dugu eta.*

***2. eguna:** 0,00.- 6,00 a.m. inguruan gauez ibiltzen hasiko gara, bekokian argiak ditugula. Astiro ibiliko gara, baina apurka-apurka berotuko gara. Hegoalderantz goaz, eta zuzen eta gorantz La Maladetarantz goaz. Mendia noizean behin, urrun, gure aurrean ikusiko dugu. Ekaina baino lehen joan bagara, aterpetik atera eta laster elurra aurkituko dugu. Data horretatik aurrera elur-kota gorago dago. Elurra badugu, aztarnak nabarmenak izango dira; elurrik ez badugu, bidezidorra argi ikusiko da.*

*Erditik igo behar dugu, ezkerrera hurbildu gabe, hortik Picos menores eta Portillón Inferior izenekoetara joango ginateke-eta. Bide hori glaziarrean modu deserosoan sartzen da, denbora baino lehen.*

*2,30.- Ia 3 ordu daramatzagu gorantz ibiltzen, elurtegiak eta bestelako oztopoak gainditzen, eta 2.900 m-ko altueran gaude. Bideak, azken desnibel gogorra gainditu ondoren,*

Allí nos encontramos con una **valla de madera**, que debemos respetar y desde la que vemos la **"Forau de Aiguallluts"**. Aquí el agua desaparece en la sima bajo las rocas, como he comentado al inicio del artículo, para aparecer en el Val D'Arán. Este es un sitio agradable para almorzar o merendar, según la hora en la que nos encontramos, pero la excursión aún sigue.

2,00.- Superamos un breve desnivel, con el barranco que forman las aguas a nuestra derecha y llegamos a la **"Cascada de Aiguallluts"**. Es espectacular. Desde el camino y con mucha precaución veremos la fuerza del agua del deshielo al caer impetuosa. Tras hacer las fotografías de rigor y unos pocos metros más adelante llegamos a la **"Forau de Aiguallluts"** (2.000 mts), una gran explanada donde el agua corre mansamente hasta la Cascada.

Podemos disfrutar, por primera vez, viendo el glaciar del Aneto y muy al fondo su cima. En pocos metros, observamos el Glaciar, el deshielo, el río que forma y ver como desaparece en la **"Forau de Aiguallluts"**, es impresionante.

El regreso, tras disfrutar del paisaje y hacer una buena cantidad de fotos, lo haremos por el mismo recorrido, en otras dos horas aproximadamente.

**Itinerario 2 (Alta Montaña): Refugio de la Renclusa-Aneto.**

**Día 1:** 0,00.- Desde **"Plan D'Estanys"**, recorrido descrito anteriormente, tomamos el sendero que sube al "Refugio de la Renclusa". Se trata de un camino evidente que discurre por un bosque, y al final del mismo, llegamos es este refugio.

0,45.- **"Refugio de la Renclusa"** (2.140 mts). Conviene haber hecho la reserva previamente y llegar a la tarde a una hora prudente para cenar y acostarnos pronto, ya que al día siguiente hay que madrugar.

**Día 2:** 0,00.- Sobre las 6,00 a.m., comenzamos a caminar de noche y con las frontales. Nuestro paso es cansino, pero es la mejor forma de ir entrando en calor. Nuestra dirección es Sur y se dirige en línea recta y ascendente hacia La Maladeta, montaña que veremos, de vez en cuando, lejos y frente a nosotros. Si hemos acudido antes del mes de Junio, encontraremos nieve al poco de salir del Refugio, a partir de esa fecha la cota de nieve está cada vez más arriba. Si tenemos nieve, la huella será evidente, si no la tenemos el sendero se verá con claridad.

Debemos ascender por la zona central, sin acercarnos a nuestra izquierda, algo que nos llevaría a Picos menores y al Portillón Inferior, que penetra de forma incómoda en el glaciar y antes de tiempo.

2,30.- Llevamos casi 3 horas caminando, hacia arriba, sorteando neveros y rimallas y nos encontramos a una altura de unos 2.900 mts. El camino, tras superar un último y fuerte desnivel gira a la izquierda, abandonando el que continúa a la Maladeta. Dándonos un respiro, llegamos al **"Portillón Superior"**. Se trata de un evidente paso entre rocas desde el que vemos todo el glaciar y el Aneto al fondo. Es buen momento para reponer fuerzas, ya que llevamos unos 800 metros de desnivel, en terreno mixto, y el desgaste es evidente.

Nos adentramos en el glaciar y casi seguro que nos tendremos que calzar los crampones, y utilizar bastón y piolet, si no lo hemos hecho ya.

El glaciar ha sufrido un fuerte retroceso en los últimos años, pero dependiendo del invierno que hayamos tenido, habrá más o menos nieve. Lo atravesaremos en diagonal, ganando altura muy poco a poco, ya que el Aneto se encuentra al fondo del mismo. La falta de desnivel nos permitirá disfrutar de la travesía, si bien, hay que andar con mucho ojo, por si hubiese grietas, algo que evitaremos pisando siempre en terreno conocido (donde haya huella).

**3,30.-** A nuestra derecha está el "Collado de Coronas", que obviamos, pero nuestro camino se torna ascendente. Tras media hora de ascensión, llegamos a la **antecima del Aneto**, a casi 3.400 mtos.

**4.00.-** Descansamos un poco y vemos el **"Paso de Mahoma"**, cresta aérea que debemos superar si queremos llegar a la Cima. Veremos montañeros que deciden quedarse en la antecima y la ida y venida de otros. Nosotros lo acometeremos sin mochila, para mayor comodidad, utilizando el sentido común y las manos para apoyarnos.

No tiene casi desnivel, y aunque el barranco a ambos lados impresiona, los puntos de apoyo son evidentes y en quince minutos lo hemos superado. Sí hay que tener cuidado con montañeros que pasen con guías y encordados, ya que pueden quedarse bloqueados y formar un tapón. Insisto, técnicamente no es difícil, pero con hielo mejor no cruzarlo, y con mucha gente, hay que esperar el momento oportuno.

**4,20.- "Cima del Aneto" (3.404 mts)**. Una gran cruz nos indica que hemos llegado. Pero nuestra excursión continúa. Debemos volver, otra vez, por el "Paso de Mahoma", duplicando nuestra precaución, pero con más tranquilidad al haber visto que no era tan complicado. Y teniendo mucho cuidado con el resto de montañeros que lo están atravesando.

Descenderemos hasta el Refugio tras superar el glaciar en otras cuatro horas.

**Observaciones**: se trata de una excursión de Alta Montaña, con terreno mixto. Requiere el uso de todo el material: bastones, piolet y crampones, que nos pondremos y quitaremos según los momentos. El esfuerzo es mucho y requiere una muy buena preparación. Y hay que tener en cuenta que estaremos unas diez horas en la montaña el día que ataquemos la cima.

**Para visitar:**

- Benasque: Iglesia, sus calles y sus tejados de pizarra.
- Castejón de Sos.
- Hospital de Benasque.

**Bibliografía:**

- "Mi Vida Subterránea" de Norbert Casteret.
- Guía Cartográfica: Editorial Alpina: "Maladeta-Aneto".
- Mapa Topográfico: "Maladeta- Aneto". Escala 1:25.000.
- Web: "Hospital de Benasque" www.llanosdelhospital.com/

*ezkerrera egiten du, La Maladetara doan bidea utziz. **"Portillón Superior"** izenekora iritsiko gara, eta atseden apur bat hartuko dugu. Harrien arteko pasabide nabarmena da, eta hortik glaziar osoa eta Aneto atzean ikusiko ditugu. Indarrak berreskuratzeko une ona da, 800 metroko desnibela egin baitugu, lurzoru mistoan, eta nekatuta baikaude.*

*Glaziarrean sartuko gara, eta seguru asko, kranpoiak, makila eta pioleta erabili beharko ditugu. Agian aurretik ere aldean izango ditugu.*

*Glaziarrak atzera egin du nabarmen azken urteetan, baina neguaren arabera, elur gehiago edo gutxiago egongo da. Diagonalean zeharkatuko dugu, apurka-apurka altuera irabaziz, Aneto atzealdean baitago. Desnibelik ez dagoenez bideaz gozatuko dugu, baina kontuz ibili behar da, arrakalarik dagoen ikusiz. Horretarako, aztarnak dauden lekuan zapalduko dugu beti.*

*3,30.- A nuestra derecha está el "Collado de Coronas", que obGure eskuinean "Collado de Coronas" dago. Gure bideak gora egingo du. Ordu erdiz gorantz ibili eta gero, Anetoren tontorraurrera iritsiko gara, ia 3.400 m-ra.*

*4.00.- Descansamos un poco y vemos el **"Paso de Mahoma"**,Atseden apur bat hartu eta "Paso de Mahoma" ikusiko dugu, aireko gailurra. Bertatik igaro beharko dugu tontorrera iritsi nahi badugu. Mendizale batzuek tontorraurrean geratzea erabakitzen dute, eta beste batzuk joaten eta etortzen ikusiko ditugu. Guk azken zatia motxilarik gabe egingo dugu, erosoago egoteko, sena eta eskuak erabiliz.*

*Ia ez du desnibelik, eta bi aldeetan duen amildegiak beldurra ematen duen arren, eusteko puntuak nabarmenak dira eta hamabost minututan gaindituta izango dugu. Kontuz ibili behar da gidekin eta sokarekin lotuta igarotzen diren mendizaleekin, blokeatuta gera daitezkeelako eta tapoia sortu. Berriro ere esango dut, teknikoki ez da zaila, baina izotza badago hobe da ez saiatzea, eta jende asko badago, une egokia iritsi arte itxaron behar da.*

*4,20.- **"Anetoren tontorra" (3.404 m)**. Gurutze handi batek adieraziko ditu iritsi garela. Baina ibilbideak jarraitu egiten du. Berriro ere "Paso de Mahoma" izenekotik itzuli behar dugu, arreta handiz, baina lasaiago, hain zaila ez dela ikusi dugu eta. Eta gailurra zeharkatzen ari diren gainerako mendizaleekin kontu handia izanda.*

*Aterpera iritsiko gara, glaziarra gainditu ondoren. Beste lau ordu beharko ditugu.*

***Oharrak:** goi-mendiko ibilaldia da, lurzoru mistotik. Material guztiak erabili behar dira: makilak, pioletak eta kranpoiak, eta ipini eta kendu egin beharko ditugu. Ahalegina handia da eta prestakuntza ona eskatzen du. Eta kontuan izan behar dugu tontorrera iristen garen egunean mendian hamar ordu inguru egingo ditugula.*

***Bisitatzeko:***

- Benasque: eliza, kaleak eta arbelezko teilatuak.
- Castejón de Sos.
- Hospital de Benasque.

**Bibliografia:**

- "Mi Vida Subterránea" de Norbert Casteret.
- Gida kartografikoa: Editorial Alpina: "Maladeta-Aneto".
- Mapa Topográfico: "Maladeta- Aneto". Escala 1:25.000.
- Web: "Hospital de Benasque" www.llanosdelhospital.com/

# JARDUNALDIA: TRAFIKO ISTRIPUEN BAREMOAREN ETORKIZUNEKO ERALDAKETA

# JORNADA: PRÓXIMA REFORMA DEL BAREMO DE ACCIDENTES DE TRÁFICO




Juan Galparsoro, Manuel Mascaraque y Carlos Fuentenebro

***Joan den martxoaren 24an, Ekitaldien Aretoan, "Stop Accidentes" trafiko-istripuetako biktimen elkarteak eta Praktika Juridikoko Eskolak antolatuta, eta Aesleme, Aspaym, DIA, Fedace P(A)T, AP(A)T eta Predifen lankidetzaz, trafiko-istripuen baremoaren etorkizuneko eraldaketari buruzko jardunaldi hau antolatu zen. Jardunaldi horretan, eraldaketa horretan parte hartzen ari diren hainbat gizarte-eragileren gogoetak eta ikuspuntuak entzuteko aukera izan genuen.***

*Jardunaldia hasteko, Rosa Mª Trinidad Coronado Stop Accidentes elkartearen Euskal Herriko ordezkariak eta Victoria Cinto Lapuente Justizia sailburuordeak aurkezpena egin zuten. Azken horrek baremoa eraldatzeko beharra azpimarratu zuen, biktimen duintasuna bermatzeko eta merezi duten eginkizuna emateko, Europako kalte-ordainik txikienak ordaintzen dituen herrialdean. Ildo horretatik, sailbuordearen esanetan, eraldaketak –biktimen elkarteek parte hartzeko gonbita izan duten lehenengoa, adituen batzorde baten bidez- alderdiek zigor-prozesuan dituzten kokapenak berrorekatzen la-*

**El pasado 24 de marzo tuvo lugar en el Salón de Actos, organizada por la asociación de víctimas de accidentes tráfico "Stop Accidentes" y la Escuela de Práctica Jurídica, con la colaboración de Aesleme, Aspaym, DIA, Fedace P(A)T, AP(A)T y Predif, esta jornada sobre la próxima reforma del baremo de accidentes de tráfico, en la que tuvimos oportunidad de escuchar las reflexiones y puntos de vista de distintos agentes sociales, que de una manera u otra están interviniendo en su génesis.**

Así, la jornada se inauguró con la presentación de Dª. Rosa Mª Trinidad Coronado, Delegada de Stop Accidentes en el País Vasco, y de la Viceconsejera de Justicia, Dª. Victoria Cinto Lapuente, quien insistió en la necesidad de reformar el baremo como medida para asegurar la dignidad de las víctimas y darles el papel que merecen en un país donde se pagan las indemnizaciones más bajas de Europa. En este sentido, dijo, la reforma –la primera en la que las asociaciones de víctimas han sido invitadas a participar, a través de una comisión de expertos- debe

contribuir a reequilibrar las posiciones de las partes en el proceso penal, para garantizar la reparación íntegra, a la vez que ayudar a superar el retraso que el estado español sufre con relación a la trasposición de la normativa europea de tratamiento de las víctimas.

Tras la presentación de la Viceconsejera, tomó la palabra Dª. Garbiñe Biurrun Damián, Presidenta de la Sala de lo Social del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, quien, tras mencionar las principales ventajas del sistema objetivo de valoración –facilita la determinación y valoración de los daños y perjuicios derivados del accidente, unifica los criterios indemnizatorios y permite a las aseguradoras determinar el coste final del siniestro- y sus inconvenientes –pérdida de discrecionalidad de los órganos jurisdiccionales para adaptar la indemnización al caso concreto, rebaja de las indemnizaciones, excesiva aplicación analógica e incorrecta valoración del lucro cesante-, coincidió en la necesidad de reformar un baremo que, en su opinión, se encuentra anquilosado en el aspecto económico, pero también en el cualitativo, y que no refleja la evolución de la conciencia social respecto a los daños derivados de la circulación.

En este sentido, el nuevo baremo, dijo, debe recoger la convicción de no tolerancia de la sociedad con relación a estos daños, así como el aumento de rentabilidad de las aseguradoras, derivada del descenso de la siniestralidad; asegurar la indemnización íntegra del daño, retomar la función persuasiva y penalizadora de los intereses, regular el lucro cesante y distinguir las víctimas que no asumen ningún riesgo objetivo (peatones).

A la intervención de la Magistrada, continuó la exposición del Fiscal Superior del País Vasco, D. Juan Calparsoro Damián, quien, entre otras reflexiones, planteó la posibilidad de considerar el baremo como un sistema indemnizatorio de cuantías mínimas, que puedan ser superadas.

Tras él, intervino D. José Pérez Tirado, Abogado Asesor Jurídico de Stop Accidentes y Portavoz de las asociaciones de víctimas, que presentó los diez principios sobre los que pivota la propuesta de reforma del sistema de valoración presentada por las asociaciones de víctimas, y entre los que destacó la necesidad de resaltar la función social del seguro obligatorio y de mantener el carácter vinculante del sistema de indemnización tasada. Junto a lo anterior, las asociaciones también insisten en que el contenido de la indemnización permita la restitución íntegra del daño, debiendo incluir el daño moral y el daño patrimonial básico, pero dejando fuera conceptos como el lucro cesante, los gastos acreditados, la ayuda de tercera persona o los honorarios y gastos de los profesionales necesarios, así como criterios suficientes de actualización de cuantías.

En este sentido, según su opinión, la reforma debe tener como prioridad a los grandes lesionados, con especial incidencia en la valoración de las necesidades y gastos futuros y del empeoramiento físico derivado de la mayor edad. Junto a lo anterior, las asociaciones reivindican también la extensión del concepto de víctima a las víctimas secundarias y que la rehabilitación sea integral, y no hasta la “estabilización de las secuelas”.

*gundu behar du, ordain osoa bermatzeko. Horrez gain, Espainiako estatuak biktimen tratamendurako Europako araudiaren transposizioan duen atzerapena gainditzen lagundu behar du.*

